Jarduerak

9. Unitatea: Erronka globalak eta afrikarrak

1. Jarduera:

Izenburua: Klima-aldaketaren aurkako gazte-mugimendu afrikarrak

Kategoria: SUSTRAIRA

Aurkezpena:

Afrikan bada klima-aldaketaren aurka mobilizatzen eta bere ahotsa entzunarazten ari den gazte-mugimendu zabal bat. Jarduera honetan, Afrikako ingurumen-ekintzaile gazte batzuk ezagutuko ditugu. Gazte horiek neurriak hartzen ari dira beren komunitateetan, eta beren antzekoak mobilizatzen ari dira justizia klimatikoaren alde borrokatzeko.

Helburu didaktikoak:

1. Giza ekintzak eragindako ingurumen-arazoen eta arazo horiek Afrikan duten eraginaren azterketa.
2. Ingurumenerako eta planetako bizitzarako mehatxuetako batzuei buruzko informazioa modu kooperatiboan hautatu eta kontrastatu, honako hauei buruzkoa, adibidez: natur baliabideak kontrolik gabe ustiatzea, habitatak suntsitzea, kutsadura kimikoa eta industriala, klima-aldaketa, desertifikazioa eta abar.
3. Klima-aldaketak gaur egun sortzen dituen gatazka sozial eta politiko nagusiak ezagutu eta aztertu.
4. Ingurumenaren arloko afrikar emakume ekintzaileen ekarpena ezagutu.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. **Balio etikoak** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
3. **Hezkuntza plastikoa, bisuala eta ikus-entzunezkoa** (Gaitasun artistikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Klima-aldaketaren ondorioak arintzeko ekintzen arrakastak herrialdeen arteko desberdintasunak gainditu behar ditu, eta **arazo global gisa egin behar zaio aurre.**
- Klima-aldaketa arazo globala da, baina **kontinente afrikarra eta bertan bizi diren pertsonak dira klima-aldaketaren ondorioak eta ingurumenaren narriadura gehien jasaten ari direnak, bai eta etorkizun hurbilean gehien jasango dituztenak ere,** nahiz eta hura gutxien bultzatu dutenak izan.

- Klima-aldaketaren ondorio sakonek orain arte nagusi zen garapen-eredua aldatu eta naturan oinarritutako garapen baterantz jotzera daramate gizateria.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Ikasleen ahalduntzea erraztuko duten tresnak bultzatu eta sustatzea ikasgelan, gazteen aktibismoa sustatzeko, ezinegon eta kezka berberak partekatzen dituen nazioarteko komunitate bateko kide izatearen zentzua indartzeko.

Garapena:

Greta Thunberg da klima-aktibista ezagunena. Hala ere, gazte aktibista asko ari dira gaur egungo krisi klimatikoari aurre egiten munduko hainbat lekutan, eta, bereziki, Afrikan. Jarduera honen bidez, Afrikan eta mundu osoan diferentzia markatzen ari diren ingurumen-ekintzaileetako 5 ezagutuko ditugu.

1. ZEREGINA: 5 ikasle talde osatuko dira. Taldeak irakasleek egokitzat jotzen dituzten irizpideen arabera osatu ahal izango dira, eta ikasleei horien osaketa erabakitzen uztea ere badago. Talde bakoitzari honako klima-aktibista afrikar hauetako bana esleituko zaio:

1. TALDEA: Vanessa Nakate (Uganda)
2. TALDEA: Hilda Flavia Nakabuye (Uganda)
3. TALDEA: Fatou Jeng (Gambia)
4. TALDEA: Ayakha Melithafa (Hegoafrika)
5. TALDEA: Adenike Oladosu (Nigeria)

2. ZEREGINA: Taldeak osatu ondoren, talde bakoitza esleitutako klima-aktibistari buruz ikertzen hasiko da.

Ondoren, datu hauek emango dizkieten informazio-iturriak aukeratu beharko dituzte:

- Aktibistaren izena eta argazkia.
- Haren biografiako datu nagusiak.
- Aktibista gisa izan dituen "mugarriak":
- Haren aktibista-borrokaren xedea.
- Salatzen dituen arazoak.
- Bultzatu dituen jarduerak.
- Aktibista gisa egindako borrokako esaldi edo lema esanguratsuenak.
- Garrantzitsutzat jotzen den beste edozein informazio.

Informazio garrantzitsua identifikatu eta prozesatu ondoren, taldeek sintetizatu eta **amaierako produktu** batean erakutsiko dute, talde bakoitzak modu kolektiboan erakutsi beharrekoa.

Irakasleek eta ikasleek erabakiko dute zer metodo plastiko eta bisual erabili nahi duten lanak azaltzeko. Adibidez, **horma-irudi sortzailea** egin dezakete hainbat teknika erabiliz (*lapbookak,* collagea eta abar), lankidetza dinamiken bidez.

3. ZEREGINA: **Amaierako produktuaren aurkezpena:** talde bakoitzak bere lana aurkeztuko du ikasgelan edo ikasgelatik kanpoko publikoaren aurrean, hala nola beste hezkuntza maila bateko ikasleak, familiak eta abar.

Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** 2 ordu (2 saio).
- **2. zeregina:** 2 ordu (2 saio). Beharrezkoa izanez gero, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete.
- **3. zeregina:** ordubete (saio 1). Astebeteko epea eman daiteke 2. zereginaren eta 3.aren artean.

OHARRA: Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da

Laguntzarako materialak:

- Klimak batuta: lau eko-heroi, eta, ahal duen guztia egiten badu ere, eko-heroi ez den bat. El País Semanal: https://elpais.com/eps/2021-10-30/unidos-contra-la-emergencia-climatica.html
- Vanessa Nakate Wants Climate Justice for Africa. Time aldizkaria: https://time.com/6109452/vanessa-nakate-climate-justice/
- Afrikaren eta mundu osoaren arteko diferentzia markatzen duten hiru ingurumen-aktibista: https://www.care.org/es/news-and-stories/news/three-environmental-activists-making-a-difference-in-africa-and-around-the-world/
- Gazte afrikarrek mezu bat dute Europarentzat: lagundu iezaguzue planeta zaintzen: https://elpais.com/planeta-futuro/2021-06-15/los-jovenes-africanos-tienen-un-mensaje-para-europa-ayudennos-a-cuidar-el-planeta.html

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

— Zer egin zaizue deigarrien?
— Zer ikasi dugu?
— Zertaz ohartu gara?
— Nola sentitu gara?

2. Jarduera:

Izenburua: Ziber-aktibismoa: Eskola antirrazista

Kategoria: EREIN

Aurkezpena:

Jarduera honetan, ikasleei proposatzen zaie "ziber-aktibista" bihurtzea, sareetan eta beste ingurune batzuetan agertzen diren mezu intoleranteen aurka jokatuz, eta inklusioan, bizikidetzan eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako diskurtsoak sortuz.

Horretarako, ikasleek sare sozialetan eta beren ingurune hurbilenean (auzoa, lagunak, familiak, eskola eta abar) gertatzen diren jokabide eta mezu baztertzaileak identifikatu beharko dituzte, eta, gaur egungo komunikazio-tresnaren baten bidez (TikTok, memeak...), mezu horiek ikusarazi eta salatu, baita aniztasunaren, elkarbizitzaren eta elkartasunaren aintzatespena sustatzen duten beste batzuk sortu ere.

Helburu didaktikoak:

1. Teknologia berriak aktiboki parte hartzeko baliabide gisa esperimentatu eta erabili.
2. Egoera desberdinetan gertatzen diren diskriminazio-egoerak identifikatu eta deskribatu.
3. Tolerantzian eta errespetuan oinarritutako diskurtso alternatiboak eraiki.
4. Ziber-aktibismoa bultzatu, estrategia pedagogiko gisa eta gizartea eraldatzeko estrategia gisa.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Euskara eta euskal literatura eta gaztelania eta espainiar literatura** (Gaitasuna komunikazio linguistiko eta literarioan).
2. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
3. **Balio etikoak** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
4. **Hezkuntza plastikoa, bisuala eta ikus-entzunezkoa** (Gaitasun artistikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Asmoa da ikasleei hedabideetan irakurtzen eta entzuten dutena interpretatzen irakastea, ikasleek berek informazioa lortzeko erabiltzen dituzten tresnak baliatuz, eta ikasleak migratzaileei buruzko gezurrak eta eta mezu

xenofoboak detektatzeko gai izatea, bai sare sozialetan eta bai eta beren ingurune hurbilean ere, modu kritikoan baloratu ahal izateko.
- Ikasleek, herritarren parte direnez eta aldaketa-eragile izan daitezkeenez, beren ingurunea eralda dezakete, informazioa partekatzen duten bitartekoak, eskura dituzten komunikazio-tresnak eta abar irakurri eta aztertzeko modu berriak ikasiz.

Garapena:

Ohartzen direnean Internet bidezko mezu diskriminatzaileak normalean uste baino ohikoagoak direla, ikasleak jabetuko dira mezu horiek detektatzen eta ezeztatzen ikas dezaketela, "hater" deritzen pertsonei benetako argudioak emanez. Horrela, ikasleak "ziber-aktibista" bihurtuko dira, eta beren eskolatik jokabide arrazistak salatu eta desmuntatzeko komunikazio-tresna berrietako batzuk erabiltzen ikasiko dute.

1. ZEREGINA: Talde bakoitzak mezu arrazista bat detektatuko du sareetan, eta honako informazio hau islatuko du:
- Zer sare sozialetan aurkitu duzue, Twitter, Instagram, Tik Tok...?
- Zein da mezu arrazista?
- "Hater"-ek estereotipo kulturalen bat, gezurren bat edo albiste faltsuren bat erabiltzen dute gorroto arrazistako mezu horiek argudiatzeko. Zeintzuk?
- Nola erantzuten zaio mezu arrazista horri?
- Zer pentsatu zenuten erantzuna irakurri edo ikustean?
- Zer ondorio ditu mezu horrek, zuen ustez, jasotzen duen biktimarentzat? Eta sare sozialen gainerako erabiltzaileentzat?
- Nola uste duzue erantzungo zenioketela mezu horri?

Ondoren, talde bakoitzak **diskurtso alternatiboa** landuko du, datu errealetan oinarrituta, honako hauetan laguntzeko:
- Arrazismoari eta/edo xenofobiari buruzko kontzientzia sortzen.
- Mezu alternatiboak sortzen, gorroto-diskurtso horiei modu eraikitzailean erantzuteko.
- Eduki "kontrainformatiboak" zabaltzen, eta, hala, gorrotoa eragiten duten gezurrak desaktibatzen.
- Arrazismoaren aurkako mugimenduekin zerikusia duten kausak defendatzen.
- Eta abar.

Ondoren, beren diskurtsoa partekatzeko erabiliko duten aplikazioa hautatuko dute (adibidez, TikTok edo antzeko besteren bat), eta, horretarako, ikus-entzunezko edukia landuko dute: memea, bideoa eta abar.

2. ZEREGINA: Bi aukera proposatzen dira:
- Ikastetxean "sareetako gorroto-diskurtsoen aurkako ziber-aktibismoari buruzko erakusketa" antolatzea.
- Inpaktu- eta hedapen-kanpaina on line bat antolatzea, ikastetxearen webgunearen eta/edo sare sozialen bidez.

Aurreikusitako iraupena:

- 2 ordu (2 saio).

OHARRA: Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.

Laguntzarako materialak:

ZIBER-AKTIBISMORAKO TRESNAK ESKOLAN:

- TikTok ikasgelan: https://100articulos.com/8-estrategias-para-usar-tiktok-en-el-aula/
- Hezkuntza-berrikuntza. Memeekin irakatsi: https://www.evirtualplus.com/innovacion-educativa-ensenar-con-memes/

ZIBER-AKTIBISMOAREN ADIBIDE BATZUK SAREETAN:

- Umorea erabiltzen duten eduki biralak eta arrazismoaren aurkako jarrera politikoa, lehen pertsonako bizipenek markatua; horrelakoak dira Espainiako tiktoker antirrazistak.:https://www.eldiario.es/tecnologia/antirracismo-espanol-abre-camino-tiktok_1_6114611.html
- Ezagutu Hanan Midan, sareko kmentario arrazistei umore handiz erantzuten dien neska gazte marokoarra: https://www.lavanguardia.com/cribeo/cultura/20200622/481904162662/conoce-hanan-midan-joven-marroqui-contesta-mucho-humor-comentarios-racistas-tiktok.html?fbclid=IwAR3Nrgffc2xkdufr9G-k6W5NheHOxZLry0b_IJEbD9ti4lg1BhjjSFaWxD8
- Arrazismo eta diskriminazio gehiagorik ez. Arrazismo eta diskriminazio gehiagorik ezarekin zerikusia duten bideo laburrak aurkitu TikTok kanalean. Ikusi honako egile hauen eduki arrakastatsua: https://www.tiktok.com/discover/no-mas-racismo-y-discriminacion?lang=es

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

— Zer egin zaizue deigarrien?
— Zer ikasi dugu?
— Zertaz ohartu gara?
— Nola sentitu gara?

3. Jarduera:

Izenburua: Ziber-aktibista afrikarrak

Kategoria: ZABALDU BEGIRADA

Aurkezpena:

Informazioaren teknologien garapenak parte-hartze politikorako eta protesta sozialerako modu berriak sortu ditu Afrikan. Jarduera honen bidez, herritarren erantzukizuna sustatzeko eta beren herrialdeetako demokrazia indartzeko gizarte-sareak erabiltzen ari diren Afrikako ziber-aktibista batzuk ezagutuko ditugu.

Helburu didaktikoak:

1. Herritarrek beren ingurunea eta gizartea aldatzen eta hobetzen daukaten funtsezko eginkizuna ezagutu.
2. Espazio digitalak eta sare sozialak aktiboki parte hartzeko bitartekoak direla ulertu.
3. Emakumezko ziber-aktibista afrikarren ekarpena ezagutu.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.

Asignaturas y Competencias básicas disciplinares:

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. **Balio etikoak** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- "Ziber-herritarrek" indar handia hartu dute Afrikako kontinente osoan. Afrikako komunitate digitalek aktiboki parte hartzen dute bizitza sozial eta politikoan, herritarren erantzukizuna sustatzen dute eta beren herrialdeetako demokrazia indartzen dute.

Garapena:

Jarduera hau garatzeko 5 ikasle talde eratuko dira. Talde bakoitzak bere herrialdeetan demokrazia parte-hartzaileko prozesuak sortzea lortu duen Afrikako ekintzaile gazte bana ikertuko du.

Gazteek zer IKT (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) tresna (blogak, sare sozialak eta abar) erabili zituzten azalduko dute taldeek, eta inguruan zer eraldaketa eta lorpen sozial eskuratu dituzten.

Informazioa bildu ondoren, taldeek elkarrekin trukatuko dute informazio hori, ikerlanaren gai izandako 5 gazteak ezagutzeko.

Aurreikusitako iraupena:

- 2 ordu (2 saio).

OHARRA: Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.

Laguntzarako materialak:

- Afrika eta sare sozialak: herritarren parte-hartze modu berriak. El País. Afrika ez da herrialde bat. https://elpais.com/elpais/2016/02/18/planeta_futuro/1455818026_253153.html
- Afrika: hala sareetan nola kaleetan. 5W aldizkaria.. https://www.revista5w.com/temas/movimientos-sociales/africa-asi-en-las-redes-como-en-las-calles-7781
- Jazarpenaren eta askapenaren artean: Afrikako emakumeen ziber-aktibismoa matxismoa hackeatzeko. https://www.eldiario.es/desalambre/censura-ciberactivismo-mujeres-africanas-machismo_1_1709496.html
- Ziber-aktibismo femeninoa: https://elpais.com/elpais/2016/02/01/planeta_futuro/1454329896_710939.html
- Ziber-aktibismoa Afrikan: https://www.africaye.org/?s=ciberactivismo&submit=Go
- Protesta, aktibismo digitala eta eraldaketa politikoa Saharaz hegoaldeko Afrikan: https://www.africaye.org/protesta-activismo-digital-y-cambio-politico-en-africa-subsahariana/

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

— Zer egin zaizue deigarrien?
— Zer ikasi dugu?
— Zertaz ohartu gara?
— Nola sentitu gara?